

ITURRI ONDOAN 2020



Ostiraletan, 22:00etan
Euskal Jolas pilotalekuan





Este año cumplimos siete años desde que en el Ayuntamiento de Deba comenzamos con el programa **ITURRI ONDOAN**, que tiene como objetivo la transmisión de la cultura vasca por medio de espectáculos diversos traídos de fuera y de otros realizados, en la medida de lo posible, con la participación de las y los debarras, construyendo de esa forma nuevas redes de relaciones en euskera.

Este año viene marcado por el COVID-19, por lo que hemos tenido que cambiar la ubicación, pasando de la plaza vieja al frontón **Euskal Jolas**. Esperamos la colaboración de todas y todos a la hora de cumplir con las directrices descritas en la última página de este folleto para evitar cualquier tipo de contagio.

Por lo demás, esperamos que disfrutéis con la programación.

Un saludo.

Nota: Cuando el aforo correspondiente a cada actuación se complete, se cerrará la puerta.



Aspalditxotik gabiltza kultura transmisioan murgilduta. Aspalditxotik, gure kondairak, gure ohiturak, ezagutarzaten hasi ginela. Hasieran puntualki-edo egiten genituen saiakera haiek, programa batean gauzatu genituen orain zazpi urte. **ITURRI ONDOAN** jarri genion izena egitasmoari. Transmisioari keinu eginez, hain zuzen ere. Transmisioari edo jarraipenari nahi baduzue. Artzeren poema eder honetan esaten den bezala: “ur berria edaten dut, beti berria den ura, betiko iturri zaharretik”. Esaldi horrek ondo baino hobeto islatzen du Debako Udalak bultzatu nahiko lukeena. Berritasuna, irekitasuna, aniztasuna, geurean sustraituta. Eta hori, kanpotik ekarritako ikusgarrien bitartez ez ezik, eta ahal den neurrian, herritarren partaidetzarekin ondutakoen bidez ere egin nahi genuke, gure artean harreman sare euskaldunak sortuz horrela.

Horrela iritsi gara, bada, zazpigarren edizio honetara. Modu xelebrea iritsi ere. COVID-19k markatu du aurrera doan urte hau eta, ezinbestean, markatuko du aurtengo gure programa ere. Batetik, tokia bera ere aldatu behar izan dugulako. Plaza Zaharreko iturri ondotik, aurten, iturririk gabeko txokora pasa beharko dugu: **Euskal Jolasera**. Baina gainera, neurri zehatzak hartu beharko ditugu elkar kutsa ez gaitezen.

Ulerkorrak izatea espero dugu eta programa honen atzeko orrian idatzitako jarraibideak (eta aldian aldian, egoeraren arabera, jakinaraziko direnak) errespetatzea eskatzen dizuegu, denon onerako izango direlakoan.

Gainerakoan, aurreikusitako ekintzak gustuko izatea espero dugu. Goza dezazuela.

2020ko ITURRI ONDOAN

Oharra: Emanaldiaren arabera, edukiera betetakoan, itxi egingo da atea.



Matriuska

Uztailak 3

“Donostiako Poltsikoko Antzerkian” saritua



antzerkia

SINOPSISIA

Bi zientzilari ikerkuntza betean murgildurik. Sakonera iristeko beharrak, ordea, ezustekoz beteriko bidean jarriko ditu. Ez dago atzera bueltarik.

Dos personas científicas en medio de una investigación. La necesidad de llegar hasta el fondo, las pondrá en un camino lleno de sorpresas. No hay vuelta atrás.

GAIA

Bi pertsonaia hauek euren gorputzetara iristeko bidaia da Matriuska. Ezarritako sisteman bizirauteko, beraien gorputzarekiko harremana etenda dute aspalditik eta, gaur, ikerkuntza honetan sakontzen hasi direnean, euren gorputzarekin egingo dute topo. Emakume gorputzarekin. Gorputz kolektibo batekin. Aurreko emakume guztiek, belaunaldi belaunaldi, informazioz bete duten gorputz horrekin. Emakume isildu, sortzaile, indartsu, bortxatu, ausart, baztertu... guztiek osatzen dute euren gorputza. Ikusi eta sentitu egingo dituzte beraien baitan, gainera.

Historiaren parte diren aurreko emakume guztien gorputzak, izenak eta izanak berreskuratzeko beharraz hitz egiten du antzezlanak. Umore biziaz ahal-duntze bidaia indartsu baten parte izango da ikuslea.



Taldeak:

Ttak teatroa + Kamikaz kolektiboa.

Aktoreak:

Iraia Elias, Amancay Gaztañaga.

Iturrian Jazz

Uztailak 10

Debako herritarrekin osatutako emanaldia. Bertako istorio kontalariak bertako jazz musikari inprobisatzaileekin ondutuko lana.

Una sesión conjunta entre narradoras e improvisadores de jazz, artistas de Deba.

Kontalariak:

Ainitze Agirrezabala, Iraia Agirrezabala, Mikel Aizpurua, Itziar Egidazu, Oihana Irusta eta Mari Seara.

Musikariak:

Iñigo Ruiz de Gordejuela eta Josu Salegi.

Kartela:

Alex Turrillas.



Begiradak

Uztailak 17




literatura eta
irudien proiektzioa

7. ediziora iritsi gara. Herriko irudigileek bideoak eta argazkiak egin dituzte, beste hainbatek literatur testutxoak sortzeko. Saio honetan irudiak proiektatu eta zuzenean entzungo ditugu sortzaileek osatutako piezak, euren ahotsetan.

Proyección de imágenes y lectura en vivo de las piezas literarias creadas expresamente para las mismas por artistas debarras.

Idazleak: Iraia Agirrezabala, Antton Aizpurua, Goizane Aizpurua, Eider Aldalur, Ketxus Amasorrain, Rexu Arakistain, Lander Aranberri, Manex Astigarraga/Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro, Riki Idiakez, Arantza Iriondo, Itsaso Itziar, Julia Ron, Ainara Sedano, Mattin Urbieta eta Amaia Zinkunegi.

Irudigileak: Nerea Aizpurua, Inma Alberdi, Willy Berasaluze, Iñaki Elosua, Aritz Mancisidor, Aitor Oñederra eta Uxue Pascual.



BEGIRADAK²⁰₂₀

Uztailak 17, ostirala, gaueko 22:00etan, Euskal Jolas pilotalekuan

Idazlariak: Nerea Aizpurua, Inma Alberdi, Willy Berasaluze, Iñaki Elosua, Aritz Mancisidor, Aitor Oñederra eta Uxue Pascual. Irudigileak: Iraia Agirrezabala, Antton Aizpurua, Goizane Aizpurua, Eider Aldalur, Ketxus Amasorrain, Rexu Arakistain, Lander Aranberri, Manex Astigarraga/Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro, Riki Idiakez, Arantza Iriondo, Itsaso Itziar, Julia Ron, Ainara Sedano, Mattin Urbieta eta Amaia Zinkunegi. Eartzak: Nere Oria



Kartela: Nere Oria.



bertsolariak

Bertso saioa

Uztailak 24

Bertsolariak:

- Unai Iturriaga
- Nerea Ibarzabal
- Miren Amuriza
- Julio Soto

Gai-jartzailea:

Unai Elizasu



Julio Soto

Miren Amuriza

Nerea Ibarzabal

Unai Iturriaga

Gai-jartzailea: Unai Elizasu

Bertso jaialdia

Deba

Uztailak 24, ostirala, gaueko 22:00etan
Euskal Jolas pilotalekuan

Lanku



Sagartu

Uztailak 31



SINOPSISIA:

UMOREZ, ALAITASUNEZ eta BIZI-BIZI, sagarrak gure herrian ez ezik, paradisuko garaietatik hona izan dituen esanahi guztiak plazaratuko dituen KALEKO ikuskizun multidisziplinarra, zuzeneko musika, antzerkia eta dantzarekin. Sagarra tentazioa da. Goserik gabe, gutizia. Bazkal-aurretik, kapritxoa. Bazkalondoren, apeta. Eta beti, osasuntsua. Gosea baretzen du, eta aldi berean, sagar gehiagoren gosea piztu. Sagarrak dantza egiten du.

Un espectáculo multidisciplinar con música en directo, teatro y danza.

Musika zuzenean: Iñaki Dieguez (eskusoinua), Iker Telleria (perkusioa).

Zuzendaritza eta Dramaturgia:

Agurtzane Intxaurreaga.

Testuak: Arantxa Iturbe.



Izaki Gardenak

Abuztuak 7



2012. urtean Jon Basagurenen bakarkako abestiak janzteko sortutako taldea da Izaki Gardenak.

Urte bereko irailean Iñaki Llarenaren estudioan bost abesti grabatu zituzten, gerora Oihuka disketeak argitaratutako Itsasargiak disko laburrean agertu zirenak.

2013ko udan Donostiako Elkar estudioetan “Amaieratik hasi” euren aurreneko lan luzea grabatu zuten Victor Sánchezen gidaritzapean. Urte bereko urrian argitaratu zen diskoa.

2015eko udan “Aurri gara” grabatu zuten, hura ere Victor Sánchezekin Elkar estudioetan. Disko hark kritika bikainak jaso zituen, Mondo Sonoro aldizkariak estatuko amerikar/folk disko onena izendatu zuelarik. Kontzertu bira zabal baten ondoren atsedean hartu zuten 2017ko martxoan.

Urte eta erdiren ondoren bueltan ziren, “Dena oskol” izeneko diskoarekin.

Grupo de pop/rock proveniente de Gasteiz.



COVID-19


JARRAIBIDEAK

- Antolatzaileak identifikatuta egongo dira eta maskara zein eskularruak erabiliko dituzte sarrera-irteeretan. Egin kasu haiek esandakoei.
- Sarrera-irteeretan ikusentzuleok maskara eramatea derrigorrezkoa izango da. Behin aulkietan eserita, kendu ahal izango dituzue, tarteak eta distantziak betetzen direlako.
- Sartzerakoan antolatzaileek gela emango diete, banan-bana, ikusleei.
- Ikusleak esertzeko aretozainak egongo dira. Multzoka sartu eta irtengo dira, haiei jarraituz.
- Aulkiak ezingo dira mugitu (ezta etxe bereko bi lagun baldin badatoz ere).
- Jan/edatekorik ekartzen baduzue, ekarri poltsa hondakinak jaso eta etxera eramateko.
- ITURRI ONDOko ekitaldiak 16 urtetik gorakoentzat dira; hau da, 2003an edo lehenago jaiotakoentzat.

DIRECTRICES

- La organización llevará elementos de identificación, mascarilla y guantes que utilizarán en las entradas y salidas. Haz caso de lo que dicen.
- Es obligatorio que las y los espectadores lleven mascarilla en las entradas y salidas al recinto. Una vez en el asiento, podrán quitársela, al estar a la distancia mínima permitida. Tendrán que volver a ponérsela a la salida.
- En la entrada, la organización dispondrá de un gel que se aplicarán todas y todos los espectadores.
- La entrada y salida al recinto se hará por grupos, siguiendo a las y los acomodadores que estarán para ello.

- Las sillas no se moverán (ni aunque los espectadores sean de la misma casa).
- Si traes algo para comer o beber, lleva también una bolsa para guardar y llevarte la basura a casa.
- Los espectáculos de ITURRI ONDOAN se organizan para mayores de 16 años; es decir, para las personas nacidas antes de o en 2003.



DRAJA ELIAS AMANCY GAFFARAGA

MATRIUSKA

Uztailak 3

UTIEL • KAJKIZAZ EGOKETIKOA

Uztailak 10, ostirala | 22:00
Euskal Jolas pilotalekua

ITURRIAN jazz

Uztailak 10

IPURU KORTAZITIA & JAZZ BIGUEN IBERIKOTIK

UTIEL • KAJKIZAZ EGOKETIKOA

Uztailak 17

BEGIRADAK 20

Uztailak 17, ostirala, gozoko 22:00etan, Euskal Jolas pilotalekua

UTIEL • KAJKIZAZ EGOKETIKOA

Uztailak 24

UTIEL • KAJKIZAZ EGOKETIKOA

SERENARI LANTZAS TALDEA / IBAIA TALDEA

SAGARTU

Uztailak 31, ostirala - 22:00
Euskal Jolas pilotalekua

Uztailak 31

UTIEL • KAJKIZAZ EGOKETIKOA

IZAKI GARDENAK

OSTIRALA - 22:00

Abuztuak 7

UTIEL • KAJKIZAZ EGOKETIKOA



EUSKAL JOLAS
pilotalekuan

